

Propaganda utzi, akordioa bete eta ikastetxeak baliabidez hornitzeko exijitu dio LABek Hezkuntza Sailari

Hezkuntza publikoa indartuko duten eta hitzarmenean 2025-26 ikasturterako adostu ziren baliabideak ezarri ditzan exigitu du LABek, eta irakasleei ekainaren 12an lanuzteak eta mobilizazioak egiteko deia berretsi die.

Gaur Begoña Pedrosa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak egindako adierazpenei erantzunez, LABek akordioa bere osotasunean bete dezan exigitu dio Sailari. Izan ere, 2025-26 ikasturterako zuzendaritzek osatu beharreko Lanpostu Zerrendetan ez dira adostutako irizpideak ikastetxe eta etapa guztietan ezarri.

Gaurkoan ere, greba eta mobilizazioen testuinguruan egin bezala, Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuak, baliabideen garrantzia erdigunean jartzeaz gain, goraipatu egin ditu; esaterako, euskara indartzeko neurriak diren EUSLE programa indartzea edota datozen ikasturteei begira sortu berri den Hizkuntza Proiektuetarako Koordinatzaileak. LABek gogorazi nahi du alor horretan egon diren lorpenak sindikatuak irmoki defendatu ondotik etorri direla, eta LAB izan zela adostasunera iristeko baliabideak ezinbestekotzat jo zituen, ez Hezkuntza Saila. Izan ere, herri bezala ditugun erronkei erantzuteko behar-beharrezkotzat jotzen du LABek aniztasunari erantzutea, euskalduntzean sakontzea eta hezkidetzat bultzatzea.

LABek, hezkuntza publikoko lehen indarra izaki, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuarekin batera borroka fase berri bat abiatu zuen urtarrean, helburu zehatz batekin: lan baldintzak hobetzea, hezkuntza publikoa indartzea eta hezkuntza kalitatea hobetzea. 9 greba egun eta hamaika mobilizazioen ondoren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza publikoko irakasleetan lortutako akordioa irmoki defendatuko duela adierazi nahi du. Akordioa bere osotasunean betetzeak ikastetxeek egunerokotasunean bizi duten errealitateari erantzutea eta ehunka lanpostu sortzea esan nahi du, gaur-gaurkoz Hezkuntza Saila urratzen ari dena.

Izan ere, arestian aipatutako baliabidez gain, datorren irailetik aurrera Haur eta Lehen Hezkuntzan ordu lektiboak 23tik 22ra jaitsi behar dira, eta Bigarren Hezkuntzan zein Lanbide Heziketan gehieneko orduak 18tik 17ra murriztu. Era berean, HEDATZE programako orduak gehieneko 17 ordu lektiboen barnean txertatu behar dira. Ondorioz, ordu lektibo bakoitzaren murrizketak lanpostuak sortu behar ditu, eta Lanpostu Zerrendan eragin zuzena izan.

Horrek planifikazioa eta hezkuntza publikoak urgentziaz behar duen inbertsioa egitea dakar berarekin. Eta Sailburuak hori behin eta berriz errepikatu arren, propaganda egiteari utzi behar dio, eta adostutakoa bete. Horrez gain, azken asteetan Hezkuntza Sailak izandako jarrerak ikastetxeetan urduritasuna eta kezka besterik ez dituela sortu salatu du LABek, presioaren, noraezaren, inprobisazioaren eta itxikeriaren ondorioz.

Horregatik, urtariletik hezkuntza publikoko irakasleek erakutsitako konpromisoaren eta indarraren bitartez, maiatzean erdietsitako hitzarmenaren alde determinazio berdinarekin borrokatzera dei egiten du LABek, eta ekainaren 12an lanuztea eta mobilizazioak egitera dei egiten du. Era berean, sindikatu sinatzaileak akordioaren defentsan batasun sindikala mantentzera deitzen ditu.